



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Mungiako Udala

«Mungiako Santos Intxausti Musika eta Dantza Eskola»rako aldi baterako behar dituen lan kontratuko langileen lan-poltsa batzuk osatzeko.

2018ko maiatzaren 24an Ekonomia eta Finantza Arloko Zinegotzi eskuordetuak emondako Ebazpenaren bidez, ondoko akordioa hartu zan.

1. Deialdia eta Ebazpen honetako eranskinean dagozan oinarriak onartzea; han zuzen bere helburu honetarako: Mungiako Musika Eskolarako espezialidade desbardinetako irakasleen lanboltsak osatzeko.

2. Ebazpen honen iragarkia eta deialdiaren oinarriak Bizkaiko Aldizkaria Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea. Era berean, beharrezko jotzen diren medioetan zabaltzeko baimena emoten dot.

Mungian, 2018ko bagilaren 4an. — Alkatea, Ager Izagirre



OINARRIAK, MUNGIAKO UDALEKO KULTUR ETA KIROL SAILAK, «MUNGIAKO SANTOS INTXAUSTI MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA» RAKO ALDI BATERAKO BEHAR DITUEN LAN KONTRATUKO LANGILEEN LAN-POLTSA BATZUK OSATZEKO ATERA DUEN OPOSIZIO-LEHIAKETARAKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTENAK

Lehenengoa. — Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua oposizio-lehiaketa bidez lan-poltsa batzuk osatzea da.

Hain zuzen ere, honako espezialitate hauek:

1. Biolontxelo irakaslea.
2. Piano eta lehen mailako irakaslea.
3. Saxofoi eta Kantu irakaslea.
4. Tronpeta irakaslea.
5. Txistu irakaslea.
6. Tikitixa eta pandero irakasle.
7. Gitarra elektrikoko irakaslea.
8. Dantza tradizionalan oinarritutako dantza irakaslea.
9. Soinu eta lehen mailako irakaslea.
10. Bateria irakaslea.
11. Biolin/biola irakaslea.
12. Flauta eta lehen mailako irakaslea.
13. Klarinete eta lehen mailako irakaslea.
14. Gitarra irakaslea.

Hautaketa-prozesua gainditzen duten izangaiak lan-poltsa horietan egongo dira, eta horrek eskubidea emango die, bakoitzak bere prozesuan lortutako puntuazioaren arabera, Mungiako Udaleko Santos Intxausti Musika eta Dantza Eskolan era honetako langileen premiak behin-behinean asetzeko kontratatuak izateko.

Lanaldia zerbitzuaren beharizanen arabera zehaztuko da, eta lana lanaldi osan edo partzialean egingo da.

Bigarrena. — Eginkizunak

Honelako lanpostuei berez dagozkienak izango dira.

Hirugarrena. — Baldintzak

Onartua izateko eta, hala denean, oposizio-lehiaketan parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) Europar batasuneko herrialderen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatutak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu dakiokkeen lurraldeetako nazionalitatea izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude; baita euren ondorengoek eta euren senar edo emazteek ere, betiere, legez bananduta ez badaude edo ondokoak hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izan arren, gurasoen kontura bizi badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan aipatuta ez dauden eta estatu espainiarrean bizi diren atzerriarrek ere hartu ahal izango dute parte. Pertsona horiek aukeratuak badira, kontratua formalizatu aurretik dokumentu bidez frogatu beharko dute jarduera hori bete ahal izateko administrazio-baimena dutela.

- b) Goi-mailako musika-titulua izatea edo gradua, lizentziatura, arkitektura edo ingeniari-titulua, edo legez horien baliokidetzat hartzen den beste edozein titulu izatea. Titulua atzerrian lortu badu, titulu hori homologatuta dagoela ziurtatzen duen



egiaztagiria aurkeztu beharko du izangaiak. Martxoaren 15eko 303/2010 EDaren 20.5 artikulua araberak, titulua ez dutenen hautagaiak ere kontuan hartuko dira, beti ere beharrezko den kualifikazio profesionala erakusten dutenean eta beren ekimena arlo horretan garatzen dutenean, edo atzerriko nazionalitatea dutenean, bere kualifikazioarekin eta hezkuntza-sistemarekin bat etorritik beti ere.

- c) Diziplinazko espediente baten ondorioz edozein Administrazio Publiko edo Autonomia Erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioetatik kanporatua ez izana, edo epai-erabaki baten ondorioz desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea lanbide edo kargu publikoetan aurretik betetzen zituen antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izatekotan, kanporatua ez izana edo egoera baliokidea, edo diziplinazko zigorrak jaso ez izana edo baliokidea, bere Estatuan, baldintza beretan, enplegu publikorako sarbidea eragozten diona.
- d) Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezkoa den gaitasun funtzionala izatea.
- e) Espezialitate bakoitzerako eranskinean zehaztutako titularen edo tituluen jabe izatea.
- f) Euskararen ezagupenari dagokionez, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatzea edo Euskal Filologian graduduna izatea.
- g) Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eta apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuak bateraezintzat jotzen dituen jarduerak ez burutzea kontratazio-egunean, kontratatua izanez gero.

Laugarrena. — Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera-orriak Mungiako Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) jaso eta aurkeztu beharko dira. Eskaera horiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

- a) Hautagaiak deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Baldintzok betetzeko epemuga eskaerak aurkezteko epemuga bera izango da, g) atalean zehazten dena salbu.
- b) Era berean, Lehiaketa fasean baloratuko diren merezimenduei buruzko datuak jaso behar dituzte eskabidean, behar bezala egiaztatuta, hau da, jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuta aurkeztuta. Ez dira baloratuko eskabidean zehazten edo egiaztatzen ez diren merezimenduak.
- c) Eskabidearekin batera NAN, AIZ edo Pasaporteak eta titulazio akademikoaren jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuta aurkeztu beharko dira.
- d) Guzti honetaz gain, I. eranskineko hirugarren A) klausulan ezarrita dagoen bezala, programazio didaktikoa aurkeztu beharko da (grapatu eta enkuadernatu barik).

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztu behar dira Mungiako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 7 egun balioduneko epean. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen den urriaren 1eko 39/2015 legeak 16.4 artikuluan adierazi bezala ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena. — Izangaiak onartzea

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Alkateak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta jendaurrean jarriko du Mungiako Udaleko iragarki-oholean.

Baztertzeko beste arrazoi batzuk: eskaera ezarritako epetik kanpo aurkeztea, hirugarren oinarriko atalean aipatzen diren agiriak ez aurkeztea eta bigarren oinarrian zehazten diren hainbat eskakizun ez betetzea izango dira.

Aipatutako zerrendan baztertutakotzak agertzen diren izengaiak 7 egun balioduneko epea izango dute bazterketa eragin duten akatsak konpontzeko edo hutsuneak betetze-



ko, iragarki-oholean eta Mungiako Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hiru egun izango dira baztertzeko erabakiaren aurka erreklamazioak aurkezteko, iragarkia Mungiako Udaleko iragarki-oholean jartzen den egunetik hasita.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, besterik gabe. Erreklamazioak aurkezten badira, baietsi edo ezetsi egingo dira behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen berri baten bidez. Zerrenda hori ere lehen aipatutako moduan emango zaio ezagutzera jendeari.

Mungiako Udalaren iragarki-oholetan eta web orrian argitaratuko dira bai hautaketa-prozesuari buruzko proben deialdiak, eta bai Epaimahaiaren iragarki eta jakinarazpen guztiak ere.

Seigarrena.— Kalifikazio Epaimahaia

Ondorengo hauek osatuko dute proben Kalifikazio Epaimahaia:

Burua:

Mungiako Santos Intxausti Musika eta Dantza eskolako zuzendaria: Izusko Izagirre Loroño jauna.

Bokalak:

Mungiako Santos Intxausti Musika eta Dantza eskolako ikasketa burua: Cristina Viudez Calzada andrea.

Getxoko Udaleko musika eskolako zuzendaria: Jose Antonio Llorente Etxeberria Jauna.

Idazkaria, hitza izango du baina botorik ez: Jaione Larrinaga Aginaga andrea

Epaimahaia ezingo da eratu bere partaideen erdiak baino gehiago agertzen ez bada, betiere, bertan egon beharko dute epaimahai-buruak eta idazkariak. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira eta berdinketa gertatuz gero, epaimahai-buruaren botoak erabakiko du.

Epaimahaikideek ezin izango dute esku hartu, eta hala jakinaraziko diote Presidenteari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. ataletan ezarritakoaren arabera, epaimahaiko kideak ezetsi ahal izango dituzte.

Arau hau aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak Epaimahaiak argituko ditu, baita aurreikusi ez diren gaietan zer egin behar den ere.

Zazpigarrena.— Probak egitea

Deialdi honen Oinarriekin batera doan eranskinean ezarritakoari jarraituta egingo da izengaien hautaketa-prozedura.

Zortzigarrena.— Ariketa eta merezimenduen kalifikazioa, Epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa fasean eta oposizio fasean lortutako puntuazioen batura izango da.

Puntuazioen baturan berdinketaren bat gertatzen bada, egiaztatutako merezimenduetan kalifikaziorik altuena duenaren alde egingo da; dena den, otsailaren 18ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legeak jasotzen duena kontutan izanda beti ere.

Oposizio fasearen eta merezimenduen kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak iragarki-oholean jarriko du jendaurrean gainditu duten izengaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera; eta Mungiako Udaleko Alkateari bidaliko dio zerrenda hori, aldi baterako behar diren lan kontratuko langileen zerrenda osatu dezan.

**Bederatzigarrena. — *Gorabeherak***

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeko eta, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, prozesua behar bezala burututzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

Deialdiaren oinarrien eta epaimahaiaren jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio-egintzen aurka egin ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena den urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako epeetan eta moduan.



1. ERANSKINA

Lehenengoa. — Konbokatutako espezialitateak

Aldi baterako behar diren lan kontratuko langileen lan-poltsak osatzeko deialdia egin da:

1. Biolontxelo irakaslea.
2. Piano eta lehen mailako irakaslea.
3. Saxofoi eta kantu irakaslea.
4. Tronpeta irakaslea.
5. Txistu irakaslea.
6. Trikitixa eta pandero irakaslea.
7. Gitarra elektrikoko irakaslea.
8. Dantza tradizionaletan oinarritutako dantza irakaslea.
9. Soinu irakaslea eta lehen mailko irakaslea.
10. Bateria irakaslea.
11. Biolin/biola irakaslea.
12. Flauta eta lehen mailako irakaslea.
13. Klarinete eta lehen mailako irakaslea.
14. Gitarra irakaslea.

Bigarrena. — Baldintza bereziak

1. Biolontxelo irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da biolontxelo espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

2. Piano eta lehen mailako irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da Piano espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea eta 1. Mailako irakasle gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

3. Saxofoi irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da saxofoi espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

4. Tronpeta irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da tronpeta espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

5. Txistu irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da txistu espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

6. Trikitixa eta pandero irakaslearen lan-poltsarako, ezinbestekoa da Trikitixa eta pandero irakasle izateko gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

7. Gitarra elektrikoko irakaslearen lan-poltsarako, ezinbestekoa da Joera berriak-gitarra elektrikoko irakasle izateko gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

8. Dantza irakaslearen lan-poltsarako, ezinbestekoa da dantza tradizionaletan irakasle izateko gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

9. Soinu eta lehen mailako irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da Soinu espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo



titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea eta 1. Mailako irakasle gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

10. Bateria irakaslearen lan-poltsarako, ezinbestekoa da Joera Berriak–bateria irakasle izateko gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

11. Biolin/biola irakasle lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da biolin edo biola espezialitateko goi-mailako tituluen edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

12. Flauta eta lehen mailako irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da Flauta espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea eta 1. Mailako irakasle gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

13. Klarinete eta lehen mailako irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da Klarinete espezialitateko goi-mailako tituluaren edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea eta 1. Mailako irakasle gaikuntza (Eusko Jaurlaritzak emandakoa) edukitzea.

14. Gitarra irakaslearen lan-poltsarako, 2618/66 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da gitarra espezialitateko goi-mailako tituluen edo espezialite horretako irakasle tituluaren jabe izatea, edota pareko bat edukitzea, edo titulazio hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

Hirugarrena. — Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa bidez egingo da.

A) OPOSIZIO FASEA

Fase honetan gehienez ere 20 puntu lortu ahal izango dira.

Oposizio faseak proba bakarria izango du.

Proba hau egingo da egiaztatzeko, batetik, hautagaiek beharrezkoa den gaitasun pedagogikoa dutela, eta bestetik, irakasteko ezinbestekoak diren teknikak ondo ezagutzen dituztela.

Proba hau programazio didaktiko bat aurkeztean datza.

Programazio didaktiko hori bakoitzari dagokion espezialitateari buruzkoa izango da, eta bertan ondokoak zehaztu beharko dira: helburuak, edukiak, balorazio irizpideak, metodologia eta gaitasunak lortzeko neurriak.

Programazio hori Musika Eskolako 2. mailako ikasturte baterako izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika Eskolen sorrera eta funtzionamendua arautzen duen 289/92 Dekretuak ezarritakoari jarraituta.

Epai-mahaiak edozein izangai ahozko frogatik egitera konbokatze ahalmena izango du epaimahaiak berak beharrezkotzat joko balu, hain zuzen ere aurkeztutako programazioa ahoz aurkezteko.

B) LEHIAKETA FASEA

Lehiaketa fasearen baremoak

Laneko esperientzia: gehienez ere 25 puntu lor litezke:

— Beste musika eskola publiko batean (Eusko Jaurlaritzak horrela onartuta dautanean), lehiari dagoen espezialitatean, jardunaldi oso edo zatikatuan egindako hilabete bakoitzeko: 0,4 puntu. (Mungiako «Santos Intxausti musika eta dantza eskolan» lan egin dutenek ez dute hau zihurtatu behar izango).

Zentro bat baino gehiagotan batera lan egiteagatik lor daitezken puntuazioak ez dira metagarriak izango.



- Eskatutakoa ez den beste musikako espezialitate batzuetan goi-mailako titulu bakoitzeko: 0,50 puntu. Gehienez, atal honetan 1,00 puntu lor daitezke.
- Eskatutakoa ez den beste musikako espezialitate batzutan erdi-mailako titulu bakoitzeko: 0,25 puntu. Gehienez, atal honetan 0,5 puntu lor daitezke.
- Eskatutakoa ez den beste musika- espezialitate baten Eusko Jaurlaritzak emandako gaikuntza bakoitzeko: 0,125 puntu. Gehienez, atal honetan 0,25 puntu lor daitezke.
- Eskatu den euskera maila baino gehiago egiaztatzen duen ziurtagiria (C1 edo C2): 5 puntu.



1. ERANSKINA ESKABIDEA	ANEXO 2 INSTANCIA DE SOLICITUD
SARRERA ERREGISTROA / REGISTRO DE ENTRADA	MUSIKA ESKOLA ESKATZEN DEN ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD PARA LA QUE SE SOLICITA

Eskatzailea / Solicitante

NAN / DNI	Abizenak eta izena / Apellidos y nombre	
Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio para la notificaciones		Telefonoa / Teléfono
Udalerrria / Municipio	Posta kodea / Código postal	Probintzia-Herrialdea / Provincia-Pais
Posta elektronikoa / Correo electrónico		

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTACION APORTADA CON LA INSTANCIA:

<input type="checkbox"/> NAN/ DNI <input type="checkbox"/> Deialdian parte hartzeko eskatutako titulua edo kopia konpultsatua / Título exigido para tomar parte en la convocatoria o copia compulsada <input type="checkbox"/> Euskarako B2 agiria / Certificado acreditativo B2 de euskera <input type="checkbox"/> Eskatutako espezialitatean Programazio didaktikoa / Programación didáctica de la especialidad solicitada <input type="checkbox"/> Bertan adierazitako merezimenduen agiriak / Documentos acreditativos de los méritos alegados:
--

Orri honetan idatzi ditudan datuak egiazkoak dira, Quien firma SOLICITA la admisión a la bolsa de trabajo a la que se eta oinarrietan eskatutako baldintza guztiak refiere la presente instancia y DECLARA que son ciertos los datos betetzen ditut. Ondorioz, lan poltsan parte hartzeko consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en las onar nazazuela ESKATZEN DUT. Bases.

Sinadura eta data / Firma y fecha

DATUEN BABESA. Mungia Udalak zera adierazten ditu: eskuratzen dituen datu pertsonalak Udalaren datu-fitxategietan tratatuko dituela. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta 2/2004 Euskal Legeak xedatutako arabera; eta datu horiek bere eskuduntzen barruko udal kudeaketari dagozkion lanak gauzatzeko erabiliko dituela. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi zaizkio, izan bere, segurtasun osoa bermatzeko ezinbestekoak diren segurtasun neurriak dituzte; eta legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik gauzatu dira datuen lagapenak. Datu horiek ezinbestekoak dira zerbitzua egoki emateko, eta datu-emeleak berak dauka datuok egiazkoak izateko eta eguneratuta edukitzeko konpromisoa. Datuen bat falsua izateak edo ez agertzeak galarazi egin lezake zerbitzua egoki ematea.

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta beraurer aurka agertzeko aukera dago helbide honetan: Trobika, 1. 48100 - Mungia (Bizkaia).

Azkenik, beste pertsona fisiko baten datuak helarazten baldin badituzu, aurreko guztiaren berri eman beharko diozu. MUNGIKOA UDALEKO ALKATEA

PROTECCIÓN DE DATOS. El Ayuntamiento de Mungia, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, y de la Ley Vasca 2/2004 le informa que los datos personales obtenidos, serán tratados en los ficheros de datos del Ayuntamiento, para la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias.

Estos ficheros han sido notificados a la Agencia Vasca de Protección de Datos, cuentan con las medidas de seguridad necesarias y serán cedidos en los supuestos legales. Los datos son necesarios para prestar correctamente el servicio. Quien da los datos se compromete a la veracidad y actualización de los mismos. La falsedad u omisión de algún dato supondrá la imposibilidad de prestar correctamente el servicio.

Puede acceder, rectificar, cancelar y oponerse en Trobika 1, 48100 - Mungia (Bizkaia).

Por último, si facilita datos de otras personas físicas deberá previamente informarles de los anteriores extremos. EL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE MUNGI